

DESKRIBAPENA

Kutunegietagoenengua baserria, Kutunegietaerdikoarekin eta Kutunegietabarrenguearekin batera, Arrate landa-auzoaren hegoaldeko mendimazeletako aldapa handiko mendikate batean dago. Oinplano angeluzuzena du, fatxada nagusiarekiko bizkar elkarzuta eta Hego-ekialdera orientatua dago. Bi isurkiko estalkia du. Eraikina txikia da, harri-hormez egina, eta kareharrizko harlanduzko eskantzuak ditu. Solairu bat eta ganbara ditu. Fatxada nagusiak lehen solairuan zurezko markoa duten bi sarrera eta hainbat materialez egindako bost leiho-bao asimetriko ditu. Hormapikoa irekita duen ganbarak, erdian pilare pendoloia du, eta aldeetan berriz, bi pilare simetriko.

Elkarren arteko espazioa, XVI. Mendiko zurezko leiho jaitsiek ixten dute. Leihoak fatxadako horman zabaltzen dira, eta leiho horien eta habe-euskarriaren arteko espazioa oholtzarekin itxita dago. Bizkarraren alboko espazioa irekiata dago, bere Ekialdean dagoen hormapikoaren estalkipekoa bezala. Mendebaldean, harri-horma estalkiperaino heltzen da. Bertan leiho-bao bat dago. Fatxada nagusia zarpiatua eta zuritua dago. Harri-hormez egindako Ipar-ekialdeko fatxadak, Ekialdeko sektorean atxikitako eranskina du, leiho-bao txiki batekin. Harri-hormez ere egindako Hego-mendebaldeko fatxadak, leiho gisako bao txikiak ditu, harlanduzko lanez inguratuak; estakipean berriz, bi leiho txiki eta estu daude. Atzealdean, aurrekoak baino altuago dauden bi leiho-bao ikus daitezke. Atzealdeko fatxada harri-hormez egina dago eta harlanduzko eskantzuak ditu. Fatxada horretan ate bat dago, dobela motzak eta erdi-puntuko arkuak dituena, eta lastategira sartzeko harrizko arrapala agertzen dira.

Sarrera, kareharrizko harri zabalak daude. Hego-ekialdean sukaldea dago eta atzealdean, logelak. Ipar-ekialdean ukuilua; bertarako sarreta kanpotik dago. Sarretatik ganbarara igotzen da. Bertako angelu batean, oholtza-hormatalez itxitako logela zahar bat dago. Gainerako guztia lastategia da. Aurrealdea, haritzeko osoko hiru pilarek eusten dute, eta atzealdea, beranduago egin zituzten pieza bakarreko bederatzi pilarek. Ipar-mendebaldeko fatxadan, atxikita, ganbara horretara sartzeko arrapala dago. Hau ez da monumentuaren barne sartzeko.

Ipar-mendebalderantz, baserriaren eraikinetik hurbik, eta bere jabetzakoa dena ere, ia oinplano karratua duen XVII. Mendeko borda dago. Harri-horma perimetralez egina dago, eta beheko solairuaren gainean dagoen ganbara txikiraino heltzen da. Ganbara, harri-hormaren gainean, zurezko lau zutabek eusten dute, eta perimetro osoan oholtzak estaltzen du. Barrualdean eta erdialdean, atxikitako eraikin txiki honek, harrizko zapataren gainean altxatzen den zurezko zutabea du. Lurzoruan, kareharrizko lauzak daude.

Kutunegietagoenguaren hego-ekialdean Kutunegietaerdikoa dago. Oinplano angeluzuzena du, eta Hego-ekialdera orientatua dago, fatxada nagusiarekiko bizkar elkarzuta duela. Bi isurkiko estalkia du. Harri-hormez eraikiata dago eta harlanduzko eskantzuak ditu. Bi solairu eta ganbara txikia ditu. Fatxada nagusiak beheko solairuan zurez inguratutako bi sarrera eta neurri diferenteko beste bi leiho-bao ditu. Lehen solairuan hiru leiho-bao eta balkoi sinple bat ditu. Hormapikoaren azpian bi leiho-bao berdina daude. Fatxada luzitua dago, eta bao guztiak markoztatuak eta

kareztatuak ditu. Ipar-ekialdeko eta Hego-mendebaldeko fatxadek eranskin itsatsiak dituzte. Atzealdeko fatxadak, eraikinaren barrualdetik bakarrik ikus daitekeen erdi puntuko leiho gotiko baten baxa estaltzen duen eranskina du atxikita.

Barrura, sarreratik satzen da. Ipar-ekialdeko zonan sukaldea eta gaur egun bizitza egiten duten gelak daude. Hegomendebaldean ukulua dago. Bertara ere kaletik sartzen da. Sarreratik ere lehen solairura igotzen gara. Solairu honen aurrealdean logelak daude. Logela hauen sabaiaren gainean ganbara dago. Atzealdea lastategia da. Bertarako sarrera, baserriaren atzealdean dago. Eraikinaren egitura, haritzeko pieza bakarreko sei ardatz-pilarek eusten dute. Ipar-ekialdeko eta Hego-mendebaldeko fatxadetan eta Ipar-mendebaldeko fatxadaren atzealdean daude eranskinak monumentutik kanpo geratzen dira.